

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kultura Klasikoaren II. Jardunaldiak antolatu ditu Hezkuntzak Nafarroako Museoan

Apirilaren 11n eta 12an izanen dira kultura eta hizkuntza klasikoekin nahiz Latina eta Grezierarekin lotutako ezagutzak zabaltzeko asmoz

Ostirala, 2019.eko martxoak 29

Hezkuntza


Departamentuak eta Ikasketa Klasikoen Nafarroako ordezkariak (SEEC) Kultura Klasikoen II. Jardunaldiak antolatu dituzte, kultura nahiz latina zein greziera hizkuntza klasikoen ezagutza sustatzeko eta hedatzeko. Hitzordua apirilaren 11n eta 12an izanen da Nafarroako Museoan eta irakasleek, ikasleek zein interesa duen edonork izango dute parte hartzeko aukera.

[Bi egunetan zehar](#), Kultura Klasikoaren inguruko gaiak jorratuko dituzte hainbat adituk; esaterako, hizkuntzen jatorria zein etimologiaren ikasketak; mitologia, garaiko heroien errekonozimendua egungo pertsonaia eta egoeretan; eta greko eta erromatarren historia eta literatura (*historia magistral vitae*).

Egitarua eta sari banaketa

Jardunaldiei ostegunean, apirilak 11, emango die hasiera Hasier Morras Aranoa, Eleaniztasuna eta Arte Ikasketen zerbitzuko zuzendariak, SEECeko kideekin batera. Ondoren, 'Grecia en el aire' dokumentalaren proiektioa izango da eta jarraian, mahai-ingurua, SEECeko ordezkari David Larrea del Mozok gidaturik: Pedro Olalla González de la Vega, dokumentalaren zuzendari eta egileak; Jesus de la Villa Polo, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko grezieran katedradun eta Ikasketa Klasikoetako Espainiako Elkarteko zuzendariak; Emilio del Río Sanz, Filologia Klasikoan doktore eta Errioxako Unibertsitateko Filologiako irakasleak; eta María del Val Gago Saldaña, Alcalako Unibertsitateko irakasle eta Latinezko Filologiako doktoreak.

Ostiralean, hilak 12, 12:00etan, *Latín Lovers* jardueran parte hartuko



Jardunaldien kartela.

dute Latina, Greziera eta Kultura Klasikoko ikasleek Emilio del Rio Sanzen laguntzarekin. Ekitaldia Plaza de la Cruz Institutuko areto-gelan egingo dute. Arratsaldean, berriz, 17:00etan, Eduardo Galanek “Neron eszenatokira” emanaldia eskainiko du eta 18:00etan, Maria del Val Gago Saldañak, “Medea: maitale, belagile, barbaroa, ahaide-hiltzailea, emakume-heroirik?” hitzaldia eskainiko du.

Jardunaldiak ixteko Mundu Klasikoko VII Olinpiadetako sari-banaketa egingo da. Maria Solana Arana, Hezkuntza kontseilariak banatuko ditu sariak, SEECeko presidente Jesús de la Villa Polorekin batera.